

BOTA GALDERA!

IÑIGO LOPEZ GAZPIO

Gogoan al duzue txikitan irakasleak gai bat amaitzean “ea, bota itzazue galderak!” esaten zuenean? Une hartan bertan hasten zen ezkutaketa-jolasa: aurreko ikaskidearen sorbalda atzean, mahai azpian, ikasgelako atearen atzealdean ... edozein ihes-mugimendu baliozkoa zitzaigun irakaslearen begiradarekin topo ez egiteko. Lotsati horiei guztiei berri on bat dakarkiegu, gaurtik aurrera konputagailuak jasango baititu muxu-gorriak gure orde.

Ondorengo lerroetan, corpus bat oinarri hartuta esaldi-mailan galderak automatikoki eta masiboki sortuko dituen sistemaren¹ hastapenak azalduko ditugu. Horretarako, sukaldaritzan jaki goxo bat prestatzeko egiten dugun antzera, galdera-sorkuntzan ere beharrezkoa izango da pauso zehatz batzuei jarraitzea. Izan ere, galderak automatikoki sortzeko eta, adibidez, pizza bat egiteko jarraitu beharreko urratsak oso parekoak dira. Kontu hori guztia martxan jartzeko jarraitu dugun prozesuak lau urrats ditu, sekuentzialki jarraitu beharrekoak:

1. SARRERA-CORPUSA PROZESATZEA

Lehen urratsa, sarrera-corpusa prozesatzea—linguistikoki analizatzea— helburu duena. Hortaz, bada, atal honetan, sarrera-corpusetik abiatuta ahalik eta **informazio gehiena** lortzen ahaleginduko gara. Informazio-bilaketa hori hizkuntzaren prozesamenduko hainbat eremutan errepikatzen bada ere, funtsezko ataza da zentzuz aurrera jarraitu nahi badugu behintzat. Atal honi gogoz ekiteko, beharrezkoa izango dugu hizkuntza-baliabide desberdinak erabiltzea, hala nola analizatzaile sintaktikoak, analizatzaile morfologikoak, analizatzaile semantikoak, lematizatzaileak, tokenizatzaileak... Hala, jatorrizko esaldietan aditzak—jokatuak eta jokatu gabeak—, izenak, izenondoak, aditzondoak... identifikatzeko gai

izango gara, eta, horrez gain, hitzak eta horiek osatzen dituzten izen-sintagmak, izen-sintagmen deklinabide-kasuak, aditzen arteko sintagma-konposaketak —aditz sinpleak, konposatuak, laguntzaileak...—eta esaldietako hitzen dependentzia sintaktikoak ere identifikatu beharko ditugu.

Sukaldaritzan aritzen garenean ere, konaturatu gabe, hasieratze horren antzeko ana-

lisi bat egiten dugu: informazioa eta lanabesak prestatzen ditugu. Lehendabizi, jakia prestatzeko behar dugun eskuliburua hartzen dugu; ondoren, zer osagai behar ditugun irakurtzen dugu, haiek zerrendatu eta bilatzen ditugu; eta, gero, behar ditugun lanabesak sukaldeko mahaiaren gainean kokatzen ditugu, errezetaren pausoak trabarik gabe egiteko.

1. ADIBIDEA

Sarrera-corpusa:

Pizzak asko gustatzen zaizkit; horregatik, afaltzeko hori prestatuko dut.

Analisi linguistikoaren emaitzak (bertsio murriztua):

```
<!-- Pizzak -->
```

```
<hitza id="t1" lemma="pizza" pos="N.IZE-ARR" case="ERG" />
```

```
<!-- asko -->
```

```
<hitza id="t2" lemma="asko" pos="A.ADB-ARR" />
```

```
<!-- gustatzen -->
```

```
<hitza id="t3" lemma="gustatu" pos="V.ADI-SIN" />
```

```
<!-- zaizkit -->
```

```
<hitza id="t4" lemma="izan" pos="V.ADL" />
```

```
<!-- horregatik -->
```

```
<hitza id="t5" lemma="horregatik" pos="A.ADB-ARR">
```

```
<!-- afaltzeko -->
```

```
<hitza id="t6" lemma="afaldu" pos="V.ADI-SIN" case="GEL">
```

```
<!-- hori -->
```

```
<hitza id="t7" lemma="hori" pos="D.DET-ERKARR" case="ABS">
```

```
<!-- prestatuko -->
```

```
<hitza id="t8" lemma="prestatu" pos="V.ADI-SIN">
```

```
<!-- dut -->
```

```
<hitza id="t9" lemma="*edun" pos="V.ADL">
```

¹ Sistema hauek QG (Question Generator) izenez ezagutzen dira.



For Comping Use Only. (c)

2. GALDEREN EMAITZAK HAUTATZEA

Behin errezetako jakiak zerrendatu ditugunean —hobe gure hozkailuan egotea den-dan baino!—, **haien bila joatea** da hurrengo urratsa. Tomatea eta urdaiazpikoa hozkailuan, gazta sukaldeko mahai gainean, ura iturrian, irina apalean, gatz armairuan... ; dena den, aitonaren baratzeko tomateak erabili **ordez**, aurreko eguneko tomate-saltsa erabiliko dugu, oso goxoa baitzegoen, eta, ziur, primeran geratuko dela.

Garatzen ari garen galdera-sortzailearen bigarren pauso honetan, sukaldean egin dugun modura, **galderen emaitza egokien**en bila joatea da helburua. Atal honetan ere,

nahitaezkoa da hizkuntzaren prozesamendu naturaleko baliabideak erabiltzea, aurretik **sailkatu ditugun osagaien artean hobere**nak hautatu behar baititugu. Hautaketa hori egiteko, informazio-iturri desberdinak erabili daitezke, esaterako: sare semantikoak; bizidunen eta bizigabeen hiztegiak edota artikuluen, albisteen, erakundeen, pertsonaia ospetsuen ... datu-baseak. Hala, hitz eta sintagma guztien artean, informazio gehien ematen digutenak aukeratuko ditugu, eta, ondorioz, sortuko ditugun galderak interesgarriak izateko aukera gehiago izango dituzte.

3. GALDETZAILEAK AUKERATZEA

Gutxi falta da amaitzeko, labea berotzen hasi eta dagoeneko prestatzen ari garen jakia usaintzeko gai gara. Osagaiak mahai gainean ditugu, beharko ditugun tresnak ere bai. Hortaz, eskuak zikintzeko garaia heldu zaigu, **osagai bakoitza prestatu** beharko baitugu: irin-orea osatu, gazta zuritu eta arraspatu, tomateari haziak kendu, urdaiazpikoari plastikozko banatzeak kendu...

Orobat, galderak sortzeko jarraitzen ari garen prozesuan egin beharreko lanak antzekoak dira. Izan ere, **corpusa** analizatu eta galderen emaitzak identifikatu ditugu; hortaz, aurrera jarraitzeko, eskuak zikindu beharko ditugu, birtualki bada ere, **sortuko ditugun galdera-motak prestatu** behar baitira. Galdera-mota —eta horrekin batera, galdetzailea— aukeratzea aurreko faseetan egindako lanarekin lotuta dagoen ataza da. Hala, sarrera-corpusean datak identifikatzea lortu badugu, zentzuzkoa litzateke denbora-motako galdera bat sortzea, “noiz” —edo tankera horretako— galdetzaile bat erabiliz horretarako. Aitzitik, pertsonaia ospetsuak identifikatzea lortu badugu, zentzuzkoa litzateke pertsonaia bati loturiko galdera bat osatzea, eta “nor” galdetzailea erabiltzea kasu horretan. Azaldu den gisa lan egingo dugu, aurreko fasean identifikatutako hautagai guztientzat galdera-mota zehaztu dugun arte.

2. ADIBIDEA

Behin-behineko hautagaien zerrenda (sukaldaritza-hiztegi sinple batean oinarrituz):

- [**Pizzak**] → **Hitzaren lema (pizza) semantika-hiztegi**an aurkitu dugu **jaki gisa**
- [**asko**] → Informazio gehigarririk ez dugu lortu
- [**gustatzen**] → Informazio gehigarririk ez dugu lortu
- [**zaizkit**] → Informazio gehigarririk ez dugu lortu
- [**horregatik**] → Informazio gehigarririk ez dugu lortu
- [**afaltzeko**] → **Hitzaren lema (afaldu) semantika-hiztegi**an aurkitu dugu **jateko ekintza gisa**
- [**hori**] → Informazio gehigarririk ez dugu lortu
- [**prestatuko**] → Informazio gehigarririk ez dugu lortu
- [**dut**] → Informazio gehigarririk ez dugu lortu

Behin betiko hautagaien zerrenda:

- [**Pizzak**] → **Jakia (lema = pizza)**
- [**afaltzeko**] → **Jateko ekintza (lema = afaldu)**

3. ADIBIDEA

- [**Pizzak**]
- Galdera-mota → **Bizigabe** baten inguruko galdera, **jakia** alegia
- Erabili beharreko galdetzailea → Zer
- [**afaltzeko**]
- Galdera-mota → **Bizigabe** baten inguruko galdera, **jateko ekintza** alegia
- Erabili beharreko galdetzailea → Zer



4. GALDERAK ERAIKITZEA

Dena prest dugu, azken txanpa bakarrik geratzen da, hots, egindako lan guztia bateratzea; hala eta guztiz ere, kontuz ibili behar dugu, azken uneko akats batek egindako lan guztia honda baitezake. Prestatu ditugun osagai guztiak errepasatu ondoren, lanari ekiten diogu: pizzaren orearen gainean tomatea zabaldu, gazta eta urdaiazpikoa gaitetik sakabanatu, eta, azkenik, jakia labean sartu. Orain, hogeit bat minutu itxaron besterik ez dugu egin behar; bitartean, platerak, mahai-tresnak eta edalontziak prestatu baino ez dugu egin behar, labeko alarmak jakia ateratzeko ordua heldu dela ohartarazten digun arte.

Galdera-sortzailearen sistemaren azken urratsean ere, pareko lanak egin beharko ditugu. Hau da, jatorrizko esaldia hartu eta patroiz zein erregelata batzuetan oinarrituz galdera eraiki behar baitugu. Horrez gain, beste hainbat moldaketa ere egin beharko dira, esaterako, loturazko lokailuak ezabatu, puntuazio-markak egokitu, aditzen kasuak eta markak egokitu...; baina ez hori bakarrik, bururatzeko zaizkigun beste hainbat gauza ere egin daitezke, galderak hobetzea helburu duen lan oro ongi etorria izango baita, hala nola anaforak ebatzea eta galderekin zerikusirik ez duen informazioa baztertzea —esaldiak laburtzea, alegia—.

4. ADIBIDEA

Jatorrizko esaldia:

Pizzak asko gustatzen zaizkit; horregatik, afaltzeko hori prestatuko dut.

Jatorrizko esaldia orrazten:

- Esaldiak laburtu (puntuazio-ikurrak egokitu ditugu)
 1. Pizzak asko gustatzen zaizkit.
 2. Afaltzeko hori prestatuko dut.
- Anaforak ebatzi [hori → pizza]
 1. Pizzak asko gustatzen zaizkit.
 2. Afaltzeko pizza prestatuko dut.
- Galderak eraiki (aditzaren kasua ere egokituko dugu)
 1. Zer gustatzen zaio asko? → [Emaiza : Pizza]
 2. Zer egingo du? → [Emaiza : Afaldu]
- Galderak eraiki (aditzaren kasua ere egokituko dugu)
 1. Zer prestatuko du afaltzeko? → [Emaiza : Pizza]

ONDORIOAK

Ikusi duzuen bezala, galderak masiboki sortzen dituen sistema martxan jartzeko, lau urrats egin behar dira: sarrera-corpora prozesatu, galderen emaitzak hautatu, galdetzaileak aukeratu eta, azkenik, galderak eraiki. Pizza bat egitea bezain erraza!

Garatu dugun sistema galdera-sortzailearen oso oinarritzko QG sistema dena— eta ariketak automatikoki sortzeko gai diren beste

hainbat sistema irakaskuntza-ikaskuntza arloarekin erabat loturik dauden baliabideak dira, irakasleek materiala prestatzeko behar duten denbora nabarmen murrizten baitute. Oro har, ariketak sortzeko sistema automatikoak e-learning plataforma handiagoetan integratuta egoten dira, eta, hala, lan-karga txiki baten ordainetan parte hartzen duten eta, aldi berean, ikasten dabilen erabiltzaile mordoia izateko aukera ematen dute.

Amaitzeko, hasieran aipatutako lotsati guzti horiei, jada badakizue zuen lotsak pizza bat egitea bezain erraz desager daitezkeela (hogeit bat minutu baino denbora gehixea go beharko baduzue ere); beraz, atera zaitezte zuen ezkulturetatik, eta bota itzazue galderak! ●

BIBLIOGRAFIA

Wikipediako webgune ofiziala, <http://www.wikipedia.org>.


IXA taldeko Eihera aplikazioaren gunea, <http://ixa.si.ehu.es/ixa/Produktuak/1273220198>

IXA taldeko Eulia aplikazioaren gunea, <http://ixa.si.ehu.es/ixa/Produktuak/1274694158>

IXA taldeko Ixati aplikazioaren gunea, <http://ixa.si.ehu.es/ixa/Produktuak/1273220525>

ALDABE, I.; LOPEZ DE LACALLE, M.; MARITXALAR, M.; MARTINEZ, E.; URIA, L.: *ArikIturri: An Automatic Question Generator Based on Corpora and NLP Techniques*. UPV/EHU.

YAO, X.; BOUMA, G.; ZHANG, Y.: *Semantics-based Question Generation and Implementation*. Johns Hopkins University, University of Groningen. Saarland University.



[HTTP://OPENCLPART.ORG](http://openclpart.org) WEBGUNEKO IRUDIETAN OINARRITUTA SORTUA. DOMEINU PUBLIKOAN.